



2024SPLE0009
9.bilera: OHIKOA 2024/07/23

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/09

EGUNA: 2024/07/23

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:20

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea. (Telematikoki)

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieto Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurari dagokion akta onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2024ko ekainaren 27an eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen zerbait esateko aktaren harira, eta inork ez zuen ezer adierazi.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2024ko ekainaren 27an egindako osoko bilkuraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak azaldu zuen Dekretuetan agertzen ziren hainbat langileen kontratazioaren harira zituen zalantzak argitzeko nahia, hain zuzen, 2024/357 eta 2024/358 Dekretuen buruzkoak. Izan ere bi dekretu horien bidez bi udaltzain praktiketako funtzionario izendatu ziren eta udal langileak izanda, harrigarri egiten zaielako praktikako funtzionarioak izendatzea.

Alkateak erantzun zuen egonkortze prozesuaren barruan eginikoak zirela, eta udaltzainen prozesuaren barruan Arkauten egin beharreko ikastaroa sartzen dela, eta formakuntza ikastaro horretan onartuak izateko Arkautek eskatzen zuela aurretik praktiketako funtzionarioaren izendapenak egitea.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik gehiago, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

3.- Vialine enpresak kudeatutako 2024ko trafiko isunei buruzko Alkatetza dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen galderak edo iradokizunak ote ziren gai honen harira.

Gilen Garciak azaldu zuen dekretu gehienak zehapen prozedura hasteko dekretuak direla, baina, DBA 18/2024 Dekretuaren ebazpen mota «Puntu irmoak dituzten zehapenak» dela, eta galdetu zuen ea zer ote zen ebazpen mota hori.

Idazkariak erantzun zuen puntuak kentzea dakarten trafiko urraketak bi dekretu mota izaten dutela, lehena zehapen prozedura hasiera ematen diona, eta zehapena irmoa denean Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari horren berri ematen zaiola bera baita puntuak kentzeko ahalmena duen organoa.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik gehiago, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

4.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udaleko 2. kreditu aldaketa..

Ikusita Kontuhartzaitzak prestatutako Debako Udaleko 2/2024 kreditu aldaketa, honako partidei eragin diena:

GASTUAK:		EBILITAKO BALIABIDEAK:	
Partida	Zenbatekoa	Partida	Zenbatekoa
Zaintza sarea 1. Fasea	18.090,00	Altxortegiko soberakina	264.925,00
Eguneko Zentroko terraza	18.685,00		
Fitxaje sistema	12.000,00		
Alamedako haur parkea	18.150,00		
Simon Berasaluzeko lokalaren obrak	80.000,00		



2024SPLE0009
9.bilera: OHIKOA 2024/07/23

Hilerriko kolunbarioak	18.000,00		
Itziarko Auzo Udala	100.000,00		
GUZTIRA	264.925,00€	GUZTIRA	264.925,00€

Ikusita Antolakuntza Batzordeak, 2024ko uztailaren 15ean egindako ohiko bileran emandako irizpena, Debako Udaleko 2/2024 kreditu aldaketa onartzearen aldekoa.

Udalbatzak, aho batez, hau erabaki zuen:

Lehena.- Hasierako onespina ematea Debako Udaleko 2/2024 kreditu aldaketari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15. eta 34. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

Hirugarrena.- Behin betiko onetsizat jotzea Debako Udaleko 2/2024 kreditu aldaketa jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkezten ez bada. Bestela, Udalbatzak ebatziko ditu erreklamazioak eta, hala badagokio, behin betiko onartuko du kreditu aldaketa.

5.- Onartzea, hala badagokio, Itziarko Auzo Udaleko 2.kreditu aldaketa.

Ikusita Kontuhartzaitzak prestatutako Itziarko Auzo Udaleko 2/2024 kreditu aldaketa, honako partidei eragin diena:

GASTUAK:		EBILITAKO BALIABIDEAK:	
<u>Partida</u>	<u>Zenbatekoa</u>	<u>Partida</u>	<u>Zenbatekoa</u>
Polion-Etxeberri bidea	52.540,00	Kapital transferentziak Debako Udala	100.000,00
Sorazu Txiki-Haundi bidea	47.116,00	Altxortegiko soberakina	47.006,00
Kanalako espaloia	47.350,00		
GUZTIRA	147.006,00	GUZTIRA	147.006,00

Ikusita Antolakuntza Batzordeak, 2024ko uztailaren 15ean egindako ohiko bileran emandako irizpena, Itziarko Auzo Udaleko 2/2024 kreditu aldaketa onartzearen aldekoa.

Udalbatzak, aho batez, hau erabaki zuen:

Lehena.- Hasierako onespina ematea Itziarko Auzo Udaleko 2/2024 kreditu aldaketari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15. eta 34. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

Hirugarrena.- Behin betiko onetsizat jotzea Itziarko Auzo Udaleko 2/2024 kreditu aldaketa jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkezten ez bada. Bestela, Udalbatzak ebatziko ditu erreklamazioak eta, hala badagokio, behin betiko onartuko du kreditu aldaketa.

6.- Onartzea, hala badagokio, hiri izaerako lur sailen balio gehikuntzaren gaineko zergaren ordenantza aldaketa: Balioen gaikuntza zehazteko urteko koefizienteak.

2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauak, 11. artikulua bigarren puntu aldatu ditu hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzko Foru Arauan koefiziente gehieneko zenbatekoaren taula, eta, horiek horrela, udal ordenantzaren jasotako koefiziente horiek eguneratzeko beharra sortu da, ordenantzaren jasotako koefiziente batzuk Foru Arauan jasotakoak baino handiagoak direlako.

Horrela, aurkeztu zen Kontuhartzaitzak prestatutako hirilurren balioaren gehikuntzen gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldatzeko proposamena. Aldaketa proposamena zergaren sorraldiaren unean lurra duen balioari aplikatu beharreko koefizienteak horrela eguneratzen ditu:

SORRALDIA	KOEFIZIENTEA
Urte betetik behera	0,14
1 urte	0,13
2 urte	0,14
3 urte	0,14
4 urte	0,16
5 urte	0,17
6 urte	0,16
7 urte	0,12
8 urte	0,10
9 urte	0,09
10 urte	0,08
11 urte	0,08
12 urte	0,08
13 urte	0,08
14 urte	0,09
15 urte	0,09
16 urte	0,10
17 urte	0,13
18 urte	0,17
19 urte	0,23
20 urte edo gehiago	0,40

Ikusita Antolakuntza Batzordeak, 2024ko uztailaren 15ean egindako ohiko bileran emandako irizpena, ordenantza aldaketa onartzearen aldekoa.

Udalbatzak, aho batez, hau erabaki zuen:

Lehena.- Hasierako onespina ematea hirilurren balioaren gehikuntzen gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen



2024SPLE0009
9.bilera: OHIKOA 2024/07/23

uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Hirugarrena.- Behin betiko onetsizat jotzea hirilurren balioaren gehikuntzen gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkeztu ez bada. Bestela, Udalbatzak ebatziko ditu erreklamazioak eta, hala badagokio, behin betiko onartuko du ordenantzaren aldaketa.

7.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udalaren eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren arteko lankidetzaren hitzarmena.

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak igorritako lankidetzaren hitzarmenaren proposamena aurkeztu zen. Lankidetzaren hitzarmenaren xedea da Gipuzkoako Elikagaien Bankuak dituen kudeaketa eta funtzionamendu gastuak estaltzeko Udalak lagunduko dion baldintzak arautzea.

Gizarte Politika Batzordeak, 2024ko uztailaren 16an eginiko bileran, gaia aztertu zuen, eta hitzarmena onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Debako Udalaren eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren arteko lankidetzaren hitzarmena.

8.- Onartzea, hala badagokio, indarkeria matxistaren kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Debako udal protokoloa.

Indarkeria matxista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Debako Udal 2024 protokoloa aurkeztu zen.

Gizarte Politika Batzordeak, 2024ko uztailaren 16an eginiko bileran, gaia aztertu zuen, eta protokoloa onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Edurne Aristik, bere taldearen iritzia eman zuen, testu hau irakurrita:

«Indarkeria matxistaren kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Debako udal protokoloa Gizarte Politika eta Berdintasun batzordean aurkeztu zen martxoan.

EH Bildu Udal taldeak, begi onez ikusi zuen proposamena, eta dokumentua aztertu ondoren, honek lanketa beharra zuela adierazi genuen. Alderdi politiko eta herriko eragileekin batera lan-bilerak egiteko eskatu genion batzorde-buruari. Ezinbestekoa iruditzen baitzitzaigun denon ekarpenak jasoko zituen Udal protokolo bat diseinatzea.

Asko insistitu ondoren, eta eskaera behin baino gehiagotan errepikatu ondoren, zinegotzi eta eragileekin lan-bilerak lortu genuen. Parte hartzea mugatua izan zen udal gobernuaren aldetik, izan ere, gobernuaren osatzen duzuen alderdietako kideek ez zenioten ekarpenik egin protokoloari. Baina Debako Talde Feministaren eta EH Bildu Udal taldearen proposamenen, iradokizun eta aldaketak jasoko zenituztela esan zeniguten.

Hori horrela, gure aldetik protokoloa lantzen jarraitu dugu eta uztailleko batzordean aurkeztu da aldaketak jasotzen dituen azken dokumentua, gaur osoko-bilkura honetara ekarri dena.

Protokolo hau oinarriak ezartzeko tresna bezala ikusten dugu.

Egin genuen lan-bileran, ikuspuntu eta ekarpen desberdinak mahaigaineratu ziren, protokoloak batzuk jasotzen ditu, eta beste batzuk ez, baina hori elkarlan prozesu baten

parte dela uste dugu, eta orokorrean aberasgarria iruditu zaigu.

Prozesu hau udaleko beste batzordeetara zabal daitekeela sinesten dugu, eredu bezala erabili daitekeela. Posible dela ikusi dugu, nahia eta borondatea egonez gero, herri hau denon artean eraikitzea. Herritarron bizi-baldintzak bermatuko dituen ekintza eta erabakietan denon ahotsa delako ezinbestekoa.»

Beste ekarpenik egon ez zenez, bozketa egin zen eta Udalbatzak, aho batez, onartu zuen indarkeria matxistaren kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Debako udal protokoloa.

Eskari eta galderak.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen eskaera edo galderarik.

Aritz Larrañagak azaldu zuen uztaileko Herritartasun Batzordeko gai bat izan zela jaien aurrekontua, eta berak bilera horretan bertan azaldu zuela aurrekontu hori Plenotik pasatzen ohi zela, eta gaurko bileran gai zerrendan puntu hori agertzen ez zela ikusita, harrituta zegoela beste urte batzuetan EAJko zinegotziak jaien aurrekontua Osoko Bilkuran onartzea eskatzen bazuten ere, lehen aldiz, 2024ko aurrekontua ez zelako Plenoan aurkeztu.

Alkateak erantzun zuen ez dela lehen aldia hori gertatzen zela, 2022 eta 2023ko jaien aurrekontua ez baitziren Plenoan onartu. Bestetik, Kultura teknikariak alda izana pixka bat zaildu egin zuela jaietako aurrekontuaren prestaketa, baina aurrekontu hori ia osatuta zegoela eta hurrengo astean igorriko zutela beste alderdiei.

Bilera amaitu aurretik, Alkateak hondartzeko toldoen zerbitzua emateko kontratatutako langile batekin izandako gorabeheren azalpena eman zituen, disziplina espedientea abiatu zela eta kautelazko neurria bezala, lan kontratua eten egin zela, azken ebazpena eman bitartean.

Besterik ez zegoenez, 19:20tan alkateak amaitutzat eman zuen Osoko Bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

